

Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. Lehen Hezkuntzan proposatutako hezkuntza materiala

Karpeta honetan, lehen hezkuntzako ikasleek gatazkei eta haien konponbideari buruz lan egiteko proposamenak aurkezten dira, curriculumeko hainbat arlotatik abiatuz. Prozedura berritzaileak oinarri hartuta jarrerak eta balioak lantzearen alde egiten duen materiala da; helburua da prozedura horien bidez, gatazkak sortzen direnean, jarduera solidario eta arduratsuetara bideratzea eta ikasteko era esanguratsuak ahalbidetzea.

Proposamen hau herritartasunaren gaia lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren hirugarren urteari dagokion hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honekin gatazkei aurre egiteko moduari buruz lan egin daiteke, lau ideia nagusi oinarri hartuta:

- Gure bizimoduan eta elkarbizitzan ezinbestean sortzen dira gatazkak. Ez dago bizitza sozialik gatazkarik gabe.
- Indarkeria ez da beti gatazkaren ondorioa, eta gatazka guztiek ez dute beti indarkeria eragiten.
- Herritar helduek gatazka elkarriketarako bideratzen dute.
- Gatazka aukera bat izan daiteke gatazkako alderdiak hazteko, betiere, bide bakezaleak kudeatzen bada-kigu.

Curriculum-arlo bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen dira, gatazka era baketsuan aztertzeke eta ebazteko herritar gisa dagozkigun ardurak lantzeko. Ildo horretatik, **Matematikan**, jatorrizko arazoen eta erronken planteamendua eginda, gatazkak ebazteko bideak ikertu eta esplora ditzaten proposatzen zaie ikasleei; **hezkuntza artistikoan**, adierazpen- eta irudikapen-teknikak eta eskuzko teknikak erabiltzen dira gatazkak planteatzeko eta aztertzeke; **inguruaren ezagueran**, ekintza-film batzuen azterketa oinarri hartuta, gatazkei aurre egiteko bide gisa indarkeriak duen papera aztertzen da, era baketsura bideratzeko; **hizkuntzan**, beldur-rrak aztertzen dira, eta elkarriketa eta eztabaida erabiltzen dira gatazkei era baketsuan aurre egiteko eta elkarbizitzarako erabakiak hartzeko bide gisa; **ingelesean**, zenbait joko daude, gatazketan esku hartzen duten sentimenduei buruz aritzeko; **gorputz-hezkuntzan**, trebetasun fisikoa eta komunikatzeko eta elkarri laguntzeko trebetasuna bateratu behar diren jokoak proposatzen dira, eta gatazken prebentzioan eta azterketan trebetasun horiek duten garrantziaz jabetzeko aukera ematen dute; **etikan, erlijioan eta tutoretzan**, horma-irudiak gatazkei buruz lan egiteko funtsezko aitzakia gisa erabil daitezke. Komeni da DBHko lehen ziklorako proposatutako materialak hemen aipatzen ez diren beste gaietan ere berrikustea, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan aplikatzeko egokiak izan baitaitezke.



Material honekin lortu nahi diren **helburu orokorrak** hauek dira:

- Ikaskuntza esanguratsuak sortzen laguntzea, ikasleei jakintzen eta esperientzien eta ikaskuntza berrien arteko harremanak ezartzeko aukera emango dieten irakatsi eta ikasteko jardueren bidez.
- Ohiko jardueretan eta taldeko harremanetan, autonomiaz eta arduraz jokatzeta.
- Taldeko ekintzen plangintzan eta egitean laguntzea, arauak eta erregelak onartzea eta norberaren helburuak taldeko beste kideekin batera erabakitzea, ikuspuntu desberdinak errespetatzea eta bakoitzak dagozkion erantzukizunak hartzea.
- Ekintzen aurrean jarrera kontziente, kritiko eta arduratsua hartzea; horretarako, eskubideak eta betebeharrak zein diren jakin behar da eta horiek betearazi egin behar dira.
- Gizartean gatazkak nahitaez egongo direla eta horiek era baketsuan tratatzeko beharra dagoela onartzea.
- Dibertsitatea aberastasun-iturri gisa onartzea eta ez gatazken bultzatzaile gisa.
- Gatazken azterketan komunikazioaren eta elkarriketaren garrantzia aztertzea.
- Gatazkek ikasteko ematen duten aukera ulertzea eta aurkitzea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Ziklo honetan gai hori lantzeko, interesgarria iruditzen zaigu irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko materiala eta denbora edukitzea, baita helburu nagusiak ezartzeko eta ikastetxeko errealitatera egokitze ere.

Horretarako, bi dokumentu aurkezten dira orientazio gisa erabiltzeko. Lehen dokumentua '*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*' izenekoa da, eta hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren aurkezpena egiten du. Guk proposatzen dugun herritartasunaren kontzeptua definitzen du, eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarrenean, '*Gatazkak modu baketsuan konpontzea*' izenekoan, dokumentu honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, eta posterraren, bideoaren, ikastetxearen proposamenaren eta jolasaren bidez osatzen dira, baita ALBOANen aholkularitza eta trebakuntzaren bidez ere.



Dokumentu horiek irakasleek eta gurasoek trebakuntza-saio batzuk egiteko oinarri gisa erabil daitezke. Saio horietan, ikuspuntuak partekatu, lanaren lehentasunak ezarri –testuinguru espezifikoaren arabera– eta proposamenak osatuko dituzte.

Ondoren, hiru trebakuntza-saiotarako proposamena aurkezten dugu, gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin jorratzeko.

1. saioa:

Aurrez *‘Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara’* dokumentua banatuko da.

1. Dinamika taldeka: *scrabble* jokoa herritartasun hitzari buruz.
 - a. Agertzen diren hitzak bateratzea.
 - b. Lehentasunaren arabera ordenatzea.
2. Herritartasunaren dokumentuari buruzko galdera hauek egitea.
 - Dokumentua azaltzea edo haren gaineko iruzkinak egitea.
 - Zer iradokitzen dizu herritartasunaren gaiak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi du zure heziketa-lanarekin?
 - Gai horri buruz ezagutzen dituzun proposamenak eta ekimenak.
 - Zure heziketa-lanean beharrezkoak edo iradokitzaileak diren proposamen zehatzak bi alderdi hauei buruz:
 - Gaiak.
 - Metodologia.
3. Talde-lana eta bateratze-lana.

2. saioa:

1. Aurreko saioan azaldutakoa kontuan hartuz, herritartasunari buruzko diagnostikoa egingo da taldeka, ikastetxean eta ikasgelan oinarrituz.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Ikastaro honetako gaiaren aurkezpena: gatazkak konpontzea.

“Gatazkak modu baketsuan konpontzea” dokumentua eta galderak edo iradokizunak banatuko dira.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure eskolei dagokienez...

- ➔ Beste elementuren bat sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Beste ezaugarririk ikusten duzu zure ingurunean? Diagnostiko horrek zenbaterainoko balio duela uste duzu zure ikasleen artean?
- ➔ Zer egoeratan sortzen dira gatazkak ikasgelan? Nola lor daitezke aurretiko beharrezko baldintzak gatazkak konpontzeko? Nola susta daitezke jarrera edo komunikazio-gaitasun jakin batzuk ikasleen artean?
- ➔ Ikasleekin hitz egiten duzunean, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarriketarako bideratzeko, zer argumentu erabiltzen dituzu? Zer tresna edo estrategia erabiltzen dituzu? Nola ikusten duzu zure burua familian, ikastetxean, herrian, munduan... gatazkak konpontzeko dagokio-

nez?

Gure buruari begira...

Gatazkak konpontzeko jarrera baketsuak garatu behar direla jabetzeaz, garrantzi handia hartzen dute erabiltzen ditugun mekanismoek, estrategiek eta bide baketsuek beste pertsona batzuekiko sortzen diren gatazkak konpontzeko.

- ➔ Nire ustez, zer erantzukizun ditut heziketa-lanean gatazkak konpontzeko dagokionez? Zein daude nire ‘laneko’ erantzukizunetatik harantzago?
- ➔ Heziketa-komunitate bateko partaide gisa:
 - Zein dira, nire ustez, sustatu behar ditugun balioak eta jarrerak?
 - Nola bultzatu daitezke bake-prozesuak?
 - Nork du horren erantzukizuna?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak bateratu eta ikastetxearen edo hezkuntza-zikloaren diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana.
3. Ikastetxeko helburu nagusiak zehaztea gaia tratatu eta erabili beharreko materiala aurkezteko.
4. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko sekuentzialki, progresiboki eta koherentziaz lan egiteko, ikastetxeko posterrak erabiliz, ALBOANek poster horiek kokatzeko ordena logiko hau proposatzen du:
 - Gatazkekin bizi gara.
 - Behar eta interes desberdinak daudelako sortzen dira gatazkak.
 - Biolentzia ez da hartu beharreko bidea.
 - Gatazka aukera bat da honetarako...
 - Gatazkak konpontzen ikasi behar da.
 - Gatazkak ikusi eta konpontzeko nahia eduki behar da.
 - Beharrezko jarrera batzuk hauek dira:
 - entzutea,
 - enpatia,
 - uko egitea,
 - bestea onartzea,
 - asertibitatea,
 - adostea,
 - harreman berriak eraikitzea,
 - Gatazkak hainbat modutan konpon ditzakegu: autogestioa, negoziazioa, arbitrajea eta bitartekotza.
 - Ondo konpondutako gatazkak aukera berriak ematen dizkigu.
 - Gatazkak konpontzeko gure jarraibideak.

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda bat agertzen da informazioa zabaltzen laguntzeko eta gaiarekin lotutako beste baliabide interesgarri batzuetara iristen laguntzeko.

Dokumentazioa

<http://www.aufop.org/publica/reifp/>

IRAKASLEEN TREBAKUNTZARAKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO ALDIZKARI ELEKTRONIKOA.

<http://lacolina.lasalle.org.ve/attach/153/default/APORTESDELAMEDIACI%C3%93N.rtf>

GATAZKAK KONPONTZEARI ETA ESKOLA-BITARTEKOTZARI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.ilo.org/public/spanish/dialogue/themes/>

GATAZKAK SAIHESTEARI ETA KONPONTZEARI BURUZKO DOKUMENTUAK.

<http://www.rds.org.co/2002/centro-mundial/>

GATAZKAK IKERTZEKO ETA KONPONTZEKO ZENTROA.

<http://www.unesco.cl/pdf/actyeven/ppe/boletin/artesp/33-9.pdf>

KULTUR ANITZEKO HEZKUNTZARI ETA GATAZKEN AZTERKETEI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.colegiomediacion.com/>

BITARTEKOTZA PROFESIONALAREN ELKARGOA. GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEI BURUZKO ARTIKULUAK ETA DOKUMENTUAK.

<http://www.crea.uct.cl/revista.php>

GATAZKAK KONPONTZEKO SISTEMA ALTERNATIBOEN ETA HAIEN EMAITZEN HEDAPENAREN IKERKETARI BURUZKO ALDIZKARIA.

<http://www.redoc.org/>

BAKERAKO PEDAGOGIARI BURUZKO DOKUMENTUEN WEB ORRIA.

Estekak

http://europa.eu.int/comm/justice_home/ejn/adr/adr_ec_es.htm

GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEN MODALITATEAK.

http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion_Tutorial_Mediacion.htm

AVILESEKO IRAKASLE ETA BALIABIDEEN ZENTROA, MATERIAL ETA ESPERIENTZIETARAKO ESTEKEKIN.

<http://intercentres.cult.gva.es/cefire/46401840/diversificacio/>

ESKOLAKO GATAZKAK KUDEATZEKO BALIABIDEETARAKO ESTEKAK. GENERALITAT VALENCIANA.

Hezkuntza-esperientziak eta -baliabideak

<http://www.culturadepaz.info/home.php>

BALIABIDE INFORMATIBOAK HEZKUNTZARAKO ETA BAKEAREN ALDEKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO EKINTZETARAKO.

<http://www.fundacioperlapau.org/castella/>

BAKE-HEZKUNTZARAKO EKINTZAK, ARGITALPENAK ETA KANPAINAK.

<http://www.aprenderaconvivir.org/programa.html>

BIZIKIDETZA OSASUNTSUAGOA, ERRESPETAGARRIAGO, SOLIDARIOAGOA ETA DEMOKRATIKOAGOA ERAIKITZEKO BALIABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN UDALEKO HEZKUNTZA-PROGRAMA.

<http://www.mediacioneducativa.com.ar/index.htm>

HEZKUNTZA-BITARTEKOTZAREN JAKINTZA-ALORREN ARTEKO TALDEA. HEZKUNTZARI BURUZKO WEB-A BITARTEKOTZARI BURUZKO ESTEKEKIN, HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEKIN ETA BIBLIOGRAFIAREKIN.

http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf_res.htm

IKASTETXEETAKO GATAZKEI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO HAUSNARKETAK ETA ONDORIOAK.

Matematika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Enigmak eta problemak konpontzeko bideak ikertzea eta aztertzea.
- Problema bat konpontzeko erabilitako prozesua azaltzea eta horri buruz hausnartzea.
- Forma geometrikoak identifikatzea eta erreproduzitzea.
- Problema bati irteerak bilatzeko iraunkortasuna erakustea.

Jarduerak

1 Jarduera: Buru-hausgarria (El rebuscabezas¹) - Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleei esperimendu matematiko-linguistiko bat egiteko eskatuko zaie. Eragiketa matematikoak letren bidez egin behar dituzte. Letra bakoitzak balio bat du: 1; horrela, hitzen letrak batu eta kendu egin behar dituzte hitz berriak osatu arte. 1.1 fitxan horren adibide bat ematen da azalpen gisa. Enigma konpondutakoan, taldeka elkartuko dira arazoa konpontzeko eman dituzten urratsak aztertzeko eta arazoak edo gatazkak konpontzeko beharrezko jarraibide orokorrak ezartzeko.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 40 minutu.

Iradokizuna: Eragiketa berriak asma daitezke hitz errazekin, eta/edo hezkuntza-maila bakoitzera egoki daitezke. Ikasleei proposa dakieke beraiek asmatzeko antzeko beste hieroglifiko batzuk beren ikaskideek ebatz ditzaten.

2 Jarduera: Arkatza altxa gabe (Sin levantar el lapiz²) - 2. eta 3. zikloak

Deskribapena: Irudi edo forma geometriko desberdinak erakutsiko zaizkie, eta paperean idazteko eskatuko zaie, arkatza altxa gabe eta lerro beretik bitan ez pasatzen saiatuz. Azkenik, arazoak konpontzeko dauden moduei buruz hausnartuko dute.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 30 minutu.

¹ Honako honetatik egokitua: Vallejo-Nágera, A. (2002). *¿Odias las matemáticas?* MARTINEZ ROCA: Bartzelona.

² Honako honetatik egokitua: Vallejo-Nágera, A. (2002). *¿Odias las matemáticas?* MARTINEZ ROCA: Bartzelona.



1.1. Fitxa

ZENBAKIEN ETA LETREN ARTEKO BURUHAUSTE BAT KONPONDUKO DUGU

- 1 Imajina dezagun alfabetoko letra bakoitzak 1 balioa duela:

B I D E
1 1 1 1

- 2 BIDERi KATE gehitzen badiogu, emaitza hau izango litzateke:

B = 1
I = 1
D = 1
E = 1
K = 1
A = 1
T = 1
E = 1

- 3 Aurreko hitzari DIETE kentzen badiogu, zein izango litzateke emaitza?

B = 1
I = 1 - 1 = 0
D = 1 - 1 = 0
E = 1 - 1 = 0
K = 1
A = 1
T = 1 - 1 = 0
E = 1 - 1 = 0

B, A eta K bakarrik geldituko lirateke.

- 4 E letra gehitzen badiogu, ze lortuko genuke?

Orain, saiatu hurrengo eragiketa egiten:


LAINO + HURA - HORI + G

- Zein urrats eman dituzue enigma ebazteko?
- Jarri ordenan.
- Zer behar dela uste duzue arazoak edo gatazkak konpontzeko familian, eskolan, munduan...?
- Pentsa ezazue kezkatzen zaituzten gatazka batean. Zer urrats emango zenituzkete hura konpontzeko?



2.1. Fitxa

Seguru behin baino gehiagotan saiatu zaretela. Beste behin saiaturako gara. Erronka bat proposatuko dizuegu. Marraztu ondoren azaltzen diren irudiak arkatza altxa gabe eta lerro beretik bitan pasatu gabe.



Oso ondo! Orain zailena. Irudi batzuk ezin dira marraztu goian deskribatutako moduan. Nola jakin deza-kegu zeintzuk diren?


Oso erraza:

- Erpin batzuetara lerro-kopuru bikoitia iristen da (marraztu adibidea).
- Beste batzuetara, berriz, kopuru bakoitia (adibidea).

Irudi batek bi erpin bakoiti baino gehiago dituenean, ezin dira marraztu lerro bakarrarekin.

Ondorengoetatik, zein marraztu daitezke goian azaldutako moduan?

Marraztu ahal direnak.



Segur aski, guztiek ez zeruten bide bera jarraituko marrazkiak egiteko. Egia esan, problemak hainbat modutan konpon daitezke emaitza lortzeko. Gainera, gauza asko ezinezkoak iruditzen zaizkigu, baina arretaz begiraturaz eta pista batzuen laguntzaz, ebazteko gai izaten gara.

Hezkuntza artistikoa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Gatazkak eta irtenbideak aztertzea.
- Gatazkak konpontzeko esperientzia lortzea.
- Sormena garatzea.
- Eguneroko gatazka-egoeren zergatiei eta irtenbideei buruz hitz egitea eta eztabaidatzea.
- Adierazpen artistikoaren formak aztertzea eta erabiltzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Txotxongiloa – Ziklo guztiak

Deskribapena: Jarduera egin baino egun bat lehenago, erabilgarritasunik ez duen materiala ekartzeko eskatuko zaie ikasleei: kartoizko arrautza-ontziak, tela-puskak, eskularru eta galtzerdi zaharrak, botoiak, kartoi-biribilkiak (komuneko paperarena), haria, sokak, makilak, etab. Hurrengo egunean txotxongiloak egiteko proposatuko zaie. Ikasle bakoitzak bere txotxongiloa egingo du ikasgelan duen materiala erabiliz (aurrena, ikasleek ekarritako objektu guztiak batera jarriko dira).

Beste saio batean, boluntarioak eskatuko dira gatazkei buruzko egoera desberdinak irudikatzen (1.1. fitxa). Talde batek antzezpena egiten duen bitartean, besteek arretaz begiratu dute. Gero, egoera bakoitza nola konpondu jakiteko, denen artean eztabaidatu dute. Arazoarentzako irtenbide bakarra adostutakoan, taldeak aukeratutako amaiera antzeztuko du txotxongiloekin.

Materiala: Guraizeak, itsasgarria, kola, pinturak, material birziklagarria, 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko hiru saio.

Iradokizunak: Baliteke arazoak sortzea txotxongiloak egitean, hainbat pertsonak material bera nahi dutelako. Horregatik, interesgarria da arreta jartzea prozesuaren une horretan, arazoak sortu ahala nola konpontzen dituzten ikusteko. Txotxongiloak egindakoan, bateratze-lana egin daiteke: jarduera egitean sortu diren gatazkak nabarmendu, eragindako pertsonak nola sentitu diren azaldu, eta gatazkak nola konpondu diren eta nola saihestu zitezkeen aztertu.

Bestetik, pertsona guztiek antzezpenean parte-hartu nahi badute, agerraldi batzuk behin baino gehiagotan egin daitezke, edo eguneroko gatazka errealak proposatzeko eska dakieke ikasleei.

Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleekin antzezpena txotxongilorik gabe egin daiteke. Interesgarria izan daiteke ikasleek berek aukeratzea antzezteko egoerak, beren errealitate-ra egoki daitezen.



2 Jarduera:

Gnomo arrosa¹ (El Gnomo Rosa) - 2. eta 3. zikloak

Deskribapena: Irakasleak ozen irakurriko du “Gnomo arrosa” ipuina (2.1. fitxa), eta, kontatzen ari den bitartean, ikasleek beren iritzia eman eta beren esperientziekin parte-har dezaten saiatuko da.

Gero, ipuinaren edukiari buruz hitz egingo dute, parte-hartzeko ikasle guztiak motibatuz (2.2. fitxa).

Ondoren, inpresiorik handiena egin dien agerraldia irudikatzeko eskatuko zaie ikasleei. Horretarako, gaztetxoek agerraldi hori marraztu egingo dute eta zaharragoek collage teknika erabiliko dute. Azkenik, marrazkia ikaskideei erakutsi eta azalpena emango diete.

Materiala: 2.1. eta 2.2. fitxak eta marrazketa/collagerako materiala.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizuna: Ipuina irudika dezakete, batzuek mimikaren bidez, beste batzuek antzerki gisa, etab. Girotzeko, moztarroak presta ditzakete hainbat materialekin.



¹ Honako honetatik egokitua: IPEDEHP (2001). *Apreniendo a educar en derechos humanos y en democracia. Guía curricular para el quinto grado de educación primaria*. IPEDEHP: Lima.

1.1. Fitxa

1. GATAZKA

Imanol, Ane, Jon eta Maite lagunak eta ikaskideak dira. Ikastaro honetan, neskato berri bat dago gelan, Evelyn. Ekuadorren jaio zen, baina orain dela hilabete batzuk gure auzora etorri zen bizitzera, gurasoekin eta ahizpekin. Ikastetxean berria da, eta oraindik ez ditu lagun asko, oso lotsatia baita. Ane haren ikaskidea da, eta oso ondo konpontzen dira. Evelynek arratsaldean askaltzera bere etxera joateko gonbidatu du, bere urtebetetzea ospatzeko. Anek onartu egin du gonbita.

Bere lagunekin topo egin duenean, Jonek esan dio arratsaldean askaria antolatu duela bere etxean. Anek esan dio ezin duela joan, Evelynekin gelditu dela, eta guztiak joan daitezkeela haren urtebetetzea ospatzera. Baina Imanolek, Maitek eta Jonek barre egin diote eta aukeratzeko eskatu diote.

→ Nola sentitzen da Ane?

→ Zer egin dezake?

2. GATAZKA

Gaur, jolas-orduan, Mikelek eta Iñigok liskarra izan dute. Ezkutaketan jolasten ari zirela, Mikel lurrera erori da. Bere ustez, Iñigok zangoztraba jarri dio nahita, baina hark dio ez duela ezer egin, beste zerbaitekin egingo zuela estropezu. Mikel haserre dago eta gero eta ozenago egiten du garrasi. Iñigok ere garrasi egiten du. Azkenean, Mikelek jo egin du Iñigo.

→ Zergatik gertatu da hori?

→ Horrelako gauzak gertatzen zaizkigu?

→ Nola saihestu daitezke egoera horiek?

→ Nola konpon dezakete arazoa Mikelek eta Iñigok jo eta gero?

→ Horretara iritsi baino lehen, beste era batera konpon zezaketen arazoa?

3. GATAZKA

Miren, Nerea, Xabi eta Igor Iñigoren etxera joan dira eskolatik irten ostean. Oso ondo pasa dute jostailu guztiekin, baina etxera joateko ordua iritsi da. Joan aurretik, jostailu guztiak gordetzeko eta gela txukun uzteko esan die Iñigoren amak. Inork ez dio kasurik egin eta jolasten jarraitu dute. Iñigoren ama itzultzean, denak aitzakiak ipintzen hasi dira: nekatuta nago, berandu da eta joan beharra dut, nik ez dut hori erabili...

- Nola sentitzen da Iñigoren ama?
Zer egin behar duela uste duzue?
- Askotan gertatzen zaigun arazoa da?
- Nola konpon daiteke arazoa?

4. GATAZKA

Orain dela bi egun Naiararen urtebetetzea izan zen. Bere familiak eta lagunek gauza asko oparitu zizkioten, besteak beste, boligrafoentzako kutxatila oso polit bat. Gaur bere kutxatila berriarekin joan da eskolara, baina goizean desagertu egin da. Naiara oso triste dago, eta, gainera, ikaskide batek kendu diola uste du. Oihanak, bere ikaskideak, Ander izan dela dio, besteei gauzak kentzen ibiltzen baita beti. Anderrek dio berak ez duela ezer egin. Orain, biak oso nahigabetuta daude.

- Nola sentitzen da Naiara?
- Nola sentitzen da Ander errua berari botatzen diotelako?
- Nola jokatu du Oihanak?
- Zer irtenbide eman diezaiokegu arazoari?

2.1. Fitxa

GNOMO ARROSA

Bazen behin, orain dela urte asko, Gnomo Arrosa bat. Diotenez, dinosaueroak gure planetan agertu baino lehenagotik zen jakintsua.

Gustuko zituen basoko hezetasuna eta iluntasuna, ez zen inoiz handik irtetzen, eta pozik bizi zen animalien artean. Baina, egun batean, ahotsak entzuten hasi zen, pertsonen ahotsak. Horrek jakin-mina sortu zion eta basora egur bila edo paseatzera etortzen zirenak zelatatzea erabaki zuen. Laster, jendea ezagutzeko interesak oihaneke mugetatik irtetera bultzatu zuten, herrietara eta hirietara. Han, beti ezkutatuta, gizonek eta emakumeek zer esaten zuten entzuten zuen denbora luzez.

Eta, horrela, harrituta utzi zuen gauza bat aurkitu zuen: gizon-emakumeek sentimenduak eta emozioak banatu zituzten beren artean... Norbaitek noizbait zehaztu zuen sentimendu batzuk gizonentzat zirela eta beste batzuk emakumeentzat.

Gizonak indartsuak izan zitezkeela, haserretu egin zitezkeela eta sumin handia eduki zezaketela esan ohi zen. Sumin hori erakuts zezaketen, baina ezin zuten negarrik egin.

Emakumeek, berriz, negar egin zezaketen eta ahulak izan zitezkeen, baina ezin zuten inoiz beren indarra, amorrua eta haserrea erakutsi. Emakumeek bakarrik eduki zezaketen beldurra eta gizonek ausardia...

"Hori da zentzugabekeria!", esan zion Gnomo Arrosak bere buruari gizon tristeak negar ez egiteko ahalegin handia egiten ikusten zituen bitartean, emakume haserretuak isiltasuna gordetzen, gizon beldurtuak beren beldurra ezkutatzeko eta emakumeak edozer gauzagarik negar egiten, ahulak zirela erakusteko.

"Horrela ezin da bizi!", zioen Gnomoak. Jendearen ideia horiek guztiek nahastea nagusitzea lortu zuten: Norentzat zen barrea? Gizonentzat? Emakumeentzat? Norentzat?...

Askatasunez ez mintzatzeagatik, denak serio ibiltzen ziren, inork ez zuen barre egiten.

Sentimenduak eta emozioak nahasteagatik, sentitzen zutena ez adierazteagatik, besteekin ez fidatzegatik, gizon-emakumeek askotan eztanda egiten zuten!!!!... Eta, orduan, gauza izugarriak gertatzen ziren: gezurak, gerrak, hilketak, bidegabekeriak, hainbeste gauza txar!

Egoera horren aurrean etsirik, Gnomo Arrosak pertsona-talde bat bildu zuen (hori orain dela urte asko gertatu zen) eta gauza batzuk proposatu zizkien. Oker zeudela esan zien, sentimenduak eta emozioak guztienak direla, bai gizon eta bai emakumeenak. Ez zela itxurarik egin behar esan zien, ez disimulatu, ezta askatasunez hitz egitea saihesti ere...

Emozio eta sentimendu guztiak hartu eta aztertzeko, ezagutzeko esan zien, haien izenak ikasi eta maitatzeko. Gero, sentimendu eta emozio horiek mundu osoan zabaltzeko eskatu zien, jende guztiari, haiek ere bere egin zitzaizkion eta erakuts zitzaizkion!

Harrezkero, hori egiten dakiten pertsona asko daude, gizonak zein emakumeak. Beste pertsonengan konfiantza dute, eta ia inoiz ez diote beren buruari gezurrik esaten, ezta besteei ere; beren sentimenduak eta emozioak askatasunez adierazten dituzte, eta ia inoiz ez dute eztanda egiten!

Hala ere, oraindik gizon-emakume askok ahaztu egiten dute zer diren barrea, negarra, harridura, samurtasuna, malenkonia eta ia sentimendu guztiak...

Orduan, oker egoten jarraitzen dute, eztanda egiten jarraitzen dute!

Dakigunez, Gnomo Arrosa jakintsua aspalditik bizi da, elefanteak baino gehiago eta dinosaueroak baino askoz ere gehiago... eta oraindik urte gehiago biziko da.

Eta zain jarraitzen du, ziur baitago egunen batean ikasiko dugula.

2.2. Fitxa

Taldeka erantzuteko

- Zein zen gnomo arrosa?
- Noiz bizi izan zen? Non bizi zen?
- Zergatik joan zen herrietara?
- Zer aurkitu zuen herrietan?
- Zer banatu zuten gizon-emakumeek?
- Zein haserre edo sumin zitezkeen, baina ezin zuten negarrik egin?
- Zeinek egin zezakeen negar eta beldurra eduki, baina amorrurik edo haserrerik erakutsi ez?
- Zer gertatzen zen emozioak askatasunez erakutsi ezin zituzten pertsonekin?
- Zer gertatzen zen sentimenduak erakusten ez zituzten gizon-emakumeekin?
- Egoera horien aurrean, zer egin zuen Gnomo Arrosak? Nola konponduko zenuke zuk egoera hori?
- Zer esan zien gizon-emakumeei?
- Zure bizitzarekin zerikusirik badu?
- Pertsonaiaren bat edo ezagutzen duzun norbait gogorarazten dizu?
- Zer esango zenioke pertsona horri? Gnomo Arrosak esan zuen gauza bera?



Inguruaren ezaguera



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Eztabaida eta elkarrizketa erabiltzea gatazkak konpontzeko metodo gisa.
- Helburu berak lortzeko hainbat baliabide erabiltzean jarrera kritikoa erakustea, horrek duen ingurumen- inpaktua kontuan hartuz.
- Hainbat baliabidetatik lortutako irudiak eta informazioa kritikoki aztertzea.
- Komunikabideek iritziak osatzeko orduan duten eraginaz jabetzea.
- Biolentziarik ez onartzea arazoak konpontzeko metodo gisa.

Jarduerak

1 Jarduera: Automobilean edo autobusean? – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Ikasleei dilema bat proposatuko zaie: zer da hobe, garraio publikoan edo pribatuan bidaia- tzea? Dilema planteatutakoan, ikasleak bi taldetan banatuko dira, dilema horri buruz duten jarreraren arabera. Talde bakoitzak beren jarrera indartu eta bestearena ahultzen duten argumentuak (ikusi 1.1. fitxa) pentsatu behar ditu. Azkenik, eztabaida egingo da gai horri buruz hitz egiteko. Interesgarria litzateke moderatzaile bat egotea. Jarduera amaitzeko, eztabaida-prozesuari buruz eta ondorioak eta adostasunak lortzeko moduari buruz hausnar dezakete (ikusi 1.2. fitxa).

Materiala: 1.1. eta 1.2. fitxak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Baliteke adostasunik ez lortzea, baina batzuetan garraio bat erabiltzea bestea erabiltzea baino hobe dela erabakitzea. Kasu horretan, azpimarratu behar da gatazkak konpontzea erlatiboa dela, hau da, batzuetan ez dagoela erantzun bakar eta baliozko bat kasu guztietarako.

2 Jarduera: Bake-asmoa – 2. eta 3. zikloak

Deskribapena: Ekintzazko zinemari buruz eztabaidatuko dute ikasleek. Arazoak biolentziaren bidez konpontzen dituzten zein film ezagutzen duten, eta zer gustatzen zaien eta zer ez film horre- tan. Ondoren, taldeka bilduko dira eta gatazkak konpontzeko metodo gisa biolentzia erabil- tzeari buruz hitz egingo dute, baita ikasketan komunikabideek duten balioari buruz ere. Azkenik, berriro ere taldeka, horma-irudi bat egingo dute, eta han arazoak modu baketsuan konpontzeko alternatibak jarriko dituzte.

Materiala: 2.1. fitxa. **Dinamika:** Taldekakoa. **Denbora:** 50 minutuko saio bat.



1.1. Fitxa

ZER DA HOBEA, AUTOMOBILEAN EDO AUTOBUSEAN BIDAIATZEA?

Garraio pribatua – automobila	Garraio publikoa - autobusa
Abantailak	Abantailak
✓ Zuzenean iristen da	✓ Gutxiago poluitzen du
✓ Azkarragoa da	✓ Merkeagoa da
✓	✓
✓	✓
✓	✓
✓	✓
Eragozpenak	Eragozpenak
✓	✓
✓	✓
✓	✓
✓	✓

1.2. Fitxa

Eztabaidaren ondoren hausnartzeko

- Adostasunik lortu duzue?
- Gatazka konpondu duzue?
- Zer ondorio atera duzue?
- Nola garatu da eztabaida? Batak besteari entzun diozue?
- Gatazka bat dugunean edo beste pertsona baten ikuspuntu bera ez dugunean, aditzen dugu bere ikus-teko modua?
- Zuen ustez, zer da garrantzitsua hitz egiteko edo eztabaidatzeko orduan?

2.1. Fitxa

Arazoak biolentziaren bidez konpontzen dituzten film asko ikusiko zenituzten seguru asko zinemari edo telebistan. Zein ezagutzen dituzue?

- Film horiek erakusten dituzten egoerak, errealak edo egunerokoak dira?
- Zuen ustez, biolentzia baliozko metodoa da arazoak konpontzeko
 - ikasgelan?
 - familian?
 - munduan?
- Zergatik?
- Beste moduren bat bururatzen zaizue gure gatazkek edo arazoak konpontzeko?
- Telebistak eta komunikabideek balio handia dute. Haien bidez, gauza asko ikasten ditugu. Zein progra-ma- edo film-mota egotea gustatuko litzaizuke programazioan?

Taldea, hama-irudi bat egingo dugu biolentziari alternatibak proposatzeko. Nola konpon ditzakegu gure eta munduko gatazkek modu baketsuan?

Hizkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Beldurrak eta haiek gainditzeko moduak lantzea.
- Arazo bati irtenbideak bilatzeko, taldean hitz egitea eta eztabaidatzea.
- Erabakiak taldean hartzeko prozesuak aztertzea.
- Arazoak konpontzeko estrategiak lortzea.
- Beste pertsona baten lekuan jarri eta enpatia lantzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Beldurrik gabe!¹ – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Ikasleei beldurrak eta haiek gainditzeko moduak lantzeko proposatuko zaie. Horretarako:

1. Ezagutzen dituzten beldurrezko ipuin guztien zerrenda egingo dute.
2. Denen artean pertsonak beldurra sentitzean izaten dituzten erreakzioen zerrenda bat egingo dute: Zer sentitzen dut...?
3. Eztabaida taldeka: Ezagutzen dugun gauza edo pertsona bati beldurra eduki diezaiokegu?
4. Irakasleak ipuin hau irakurriko du: "Arriskatzeko ez dena" (1.1. fitxa).
5. Ikasle bakoitzak esaldi bat idatziko du: Beldurra nion, baina orain ez, zeren
6. Taldeka, beste pertsona batzuen beldurrei buruz eta etxean edo munduan sortzen direnei buruz hitz egingo dute. Nola gaindi ditzakegu beldur horiek?
7. Denen artean, beldur bat gainditu/gatazka bat konpontzen den ipuin bat kontatu eta idatziko dute.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera: Bizikidetza-dekalogoia – 1. eta 2. zikloak

Deskribapena: Gaizki sentiarazten dituen ikastetxeko gertaera batean pentsatzeko eskatuko zaie ikasleei (irakasle eta ikaskide edo ikastetxeko beste kide batzuekiko duten tratua dela eta), eta galdera hauetan oinarrituz aztertzeko:

- Sarritan gertatzen da?
- Pertsona desberdinen arteko tratua egokia iruditzen zaizu?
- Pertsonak elkar tratatzeko duten moduarekin ados zaude?
- Nola nahiko zenuke zu tratatzea zure ikaskideek? Eta irakasleek?

Ondoren, gutun anonimo bat idazteko eskatuko zaie, beren arazoa azaldu eta irtenbidea proposatuz.

¹ Honako honetatik egokitua: Dotras, L. (1997). *Cuentos para educar*. CCS: Madril.

Irakasleak gutuna irakurri eta arazoak eta proposatutako irtenbideak azalduko ditu (hainbat egunetan egin daiteke eta kartoi mehe edo papelografoan idatz daitezke arazo eta irtenbide horiek).

Proposamen guztiak aurkeztutakoan, taldeka "Ikasgelako bizikidetza-dekalogo" idazteko eskatuko zaie ikasleei. Azkenik, talde bakoitzak gainerako kideei aurkeztuko die bere dekalogo, eta denen artean dekalogo bakarra idatziko dute, adostasunez, botazioz edo beraiek zehaztutako moduan.

Materiala: Kartoi meheak edo papelografoa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

3 Jarduera: "Zer egin hau egiteko:..."² – 3. zikloa

Deskribapena: Ikasgelan detektatu dituzten arazoei buruz eta horiek konpontzeari edo etorkizunean saihesteari buruz hitz egitea proposatuko zaie ikasleei. Eztabaida egiteko, estrategia hau erabiliko dugu:

1. Ikasleak 8 pertsonako taldetan banatuko dira.
2. Talde bakoitzak moderatzaile bat aukeratuko du.
3. Konpondu beharreko gatazka erabakitzeko, hainbat ideia proposatuko dituzte taldean, eta zein arazo eta zein ordenatan landuko dituzten erabakiko dute.
4. Lehen arazoa proposatu zuen pertsonak xehetasunak azalduko dizkio taldeari: zergatik dagoen arazoa, zer irtenbide egon daitezkeen, zein konponbide ikusten dituen... Taldeak bere ideiak idatziko ditu bitartean.
5. Arbelean edo papelografoan hau idatziko da: "Zer egin hau egiteko:...".
6. Taldeak ideiak emango ditu helburu hori lortzeko irtenbide edo moduen gainean galdera honi erantzunez: "Zer egin hau egiteko:...?"
7. Taldeak sortu diren ideiei buruz eztabaidatuko du, eta horietako bat aukeratuko du arazoaren irtenbide gisa.
8. Aurkezleak irtenbidea aplikatzeko eman beharreko urratsak eta horretarako zenbat denbora behar den azalduko du.
9. Irtenbidea aurkitutakoan, taldea beste arazo batetaz ardura daiteke.

Materiala: Arbela edo papelografoa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

² Honako honetatik egokitua: Judson, S. (2000). *Aprendiendo a resolver conflictos en la infancia*. CATARATA: Madril.

1.1. Fitxa

ARRISKATZEN EZ DENA

Gaua zirrikitutik sartzen ari zen, ilargiak irribarre zabalak erakusten zuen bitartean.

- Ama, konturatu zara ilargia gaur gutaz barrez ari dela?

- Baina, Iñaki, zer mania duzu ilargiarekin – esan zion amak.

- Izan ere, ilargiari begiratzea eta haren bizitzaz jakitea gustatzen zait. Dibertigarriena soka batekin lotu eta tira egiten diodala imajinatzea da, kometa bat balitz bezala.

- Baina hori da txorakeria! Ilargia beti geldirik dago.

- Bai zera! – erantzun zuen Iñakik, bere begi handi eta distiratsuak guztiz irekiz. – Bizikletan noanean, ilargiak segi egiten dit, eta gelditzen naizenean, bera ere gelditu egiten da.

- Eta zer gehiago ikusten duzu ilargian?

- Batzuetan merenge borobil eta goxoa dela dirudi, beste batzuetan izarrak garbitzen diren konketa baten itxura izaten du. Laino pinpirinek begiratzeko eta beren kizkurak orrazteko ispilua ere izan daiteke. Baita...

- Bueno, Iñaki, nahikoa berriketa egin duzu gaurkoz ilargiari buruz – erantzun zion amak. Bazekien argia ez itzaltzeagatik ari zela ilargiarekin bueltaka Iñaki.

- Errezatu eta itzali argia azkar, berandu da eta.

- Irakur dezaket pixka batean? Oraindik ez dut logurarik, eta... gaur ilargi betea ez dagoenez...

Azken horrek ihes egin zion. Ez zuen esan nahi, horregatik estali zuen ahoa eskuarekin, azken hitzak ezabatu nahian. Baina amak ez zion arreta berezirik ipini eta ez zion ezer galdetu.

Iñakiri ilargi betea gustatzen zitzaion, gaueko bere linternak baitzen. Iñaki beldurti samarra zen. Bueno, samarra ez, nahiko beldurtia. Egia esan, Iñaki oso beldurtia zen, baina inork ez zekien eta inork ez zuen jakin behar inoiz.

Haize pixka bat atera zuen eta laino beltzak iritsi ziren goietatik; zerua erabat ilundu zen. Ilargiaren irribarre noizbehinka agertzen zen lainoen artean; ilargia zen Iñakiren sekretua ezagutzen zuen bakarra. Ekaitza zetorren.

Argia itzali eta izaren azpian uzkurto zen, belaunekin ia kokotsa ukitzen zuelarik, bere gorputzarekin harila osatuz.

- Psssss, psssss – hasi zen entzuten Iñaki bere logelan.

- Ez egin kasurik, Iñaki – esaten zion bere buruari.

- Psssss, psssss zer naiz ni! – zioen txistu bitxi hark.

- Nork deitzen nau? – erantzun zuen Iñakik oso baxu eta ahots zakarrarekin, izara azpian izerditan zegoen bitartean, dardarka egon arren.

Iñaki ez zen ausartu argia pizten, eskua izarapetik aterazteak soilik izutu egiten baitzuen.

- Eta trikimailu bat bada eta eskutik heltzen badidate? – pentsatu zuen Iñakik. Eta, hori pentsatzen ari zela, bizkarrezurrean behetik gora kilimak sentitzen ari zen, hostoen moduan dar-dar eginez.

Bat batean, kilimak sentitu zituen ezkerreko sorbaldan, lepotik oso hurbil, eta poliki-poliki esku bat igo zuen hatz egiteko.

- Ai! Ez izan astakirtena! Txikia eta xehea naiz! – esan zion ahots misterioitsu hark, orain pixka bat haserretuta.

- Baina, nor ari zait hitz egiten? – esan zuen Iñakik baxu eta ahots zakarrarekin.

- Ni naiz, PUFFF izena dut. Hauts-maluta bat naiz eta aspalditik bizi naiz zure logelan. Ni ere zu bezain beldurtia nintzen lehen, baina lortu nuen...

- Zuk nolatan dakizu nire beldurren berri? – eten zion Iñakik ahots dardartsuaz eta etenaz.

- Ez dago esan beharrik. Hori igarri egiten da. Esan ez dizut ba, zure logelan bizi naizela aspalditik?

- Izan ere, nik sekretu bat izatea nahi nuen, ez zait gustatzen besteek nitaz barre egitea.

- Horrexegatik azaldu behar nizun nola gal daitekeen beldurra, baina, motel, ez didazu hitz egiten uzten. Esaten ari nintzen bezala, ni ere oso beldurtia nintzen. Haizeak beldurra ematen zidan, putz egitean batetik bestera eramaten ninduen, ez nora ninderaman, ez zergatik jakin gabe. Baina beldur gehien ematen zidana elefante izugarri baten tronpa zen, bukaeran eskulak zapal bat zuena. Zarata burrunbatsu hura entzutean, zure ohe azpiko txoko batean sartzen nintzen eta geldirik egoten nintzen. Egun batean tronpak xurgatu egin ninduen eta egundoko abiaduran igo nintzen tutu ilun batean zehar. Gainerako hauts-malutek oiho eta barre egiten zuten oso gustura, errusiar mendian bazebiltzan bezala. Gero, poltsa batean amaitu genuen, eta, handik gutxira, poltsa hura hustu eta hegan irten ginen nahi genuen tokira. Egia esan, oso

dibertigarria izan zen. Gauza ez zen hainbesteraino-koa, baina noski, zer zen ez nekienez, beldurra nuen. Orain badakit xurgagailu bat besterik ez dela, eta hauts-maluta guztiek oso ondo pasatzen dugu.

- Ah! – erantzun zuen Iñakik begia eta ahoa zeharo irekita – Eta, zergatik bueltatu zara?

- Niri zure logela gustatzen zait, eta, gainera, zergatia ezagututa beldurra galdu egiten dela azaldu nahi nizun, eta garrantzitsuena beldurra galtzea dela. Gero, beldurrik gabe galdu behar da, horixe baita nik egiten dudana zure amak xurgagailuarekin jasotzen nauen bakoitzean.

- Hori da txorakeria xurgagailuari beldurra edukitzea! – esan zuen Iñakik, oraingoan zentzumenez eta txorakeria horren aurrean barre eginez.

- Noski, zuk badakizulako zer den. Nik lehen ez nekien zer gerta zitzaidakeen, eta, beste hauts-malutek kontatzen zidaten arren, ni ez nengoen oso konbentzituta hura hain dibertigarria zenik.

Haizea txistuka hasi zen, indartsuago, itsaslabarrean oihu eginez. Zuhaitzek adarrak mugitzen zituzten, hegoen antzeko marmarra ateraz. Euria indartsu ari zuen kristalen aurka, eta trumoi bat entzun zen zerua-
ren bazterrera ihes eginez.

Iñaki are gehiago uzkurtu zen ohean. Dardarka zegoen, hotza zuen eta aldi berean izerditan zegoen, baina okerreña zen pixagura zuela.

- Falta zitzaidana –pentsatu zuen– Ea nola eusten diodan pixari gau osoan! Ohean egiten badut, bihar denek barre egingo dute nire kontura. Baina orain ezin naiz jaiki, norbait nire leihoa jotzen ari da hatz lodi eta indartsuekin, behean mamuak marmarrean ari direla entzuten dut, eta teilatuan kateak arrastaka dituen munstroa dago.

- Ez, Iñaki! Ezetz! Hori guztia zu ari zara imajinatzen!

Entzun lasai lurraren gainean dagoen musika. Erraldoi baten hatz horiek ohi baino indartsuago ari duen euria besterik ez dira. Behean dauden mamuak ez dira mamuak, sukaldeko leihoa da; irekita dago eta haizeak mugitzen du. Marmar horiek leihoaren gontzak dira. Lasai zaitez, adorea izan; horixe da jaiki eta bainugelara joateko behar duzun guztia. Behin egindakoan, ikusiko duzu zer gustura egongo zaren, eta zure beldur guztiak txorakeria direla irudituko zaizu, xurgagailuari nion beldurra bezala. Nire hauts-maluta lagun bat marinela da

eta hara zer esaten duen beti: **“Arriskatzen ez duenak ez du itsasoa zeharkatuko”**.

- Arrazoa duzula usten dut, baina... ez zaizu axola bainugelara laguntzea?

- Garrantzitsuena zuk egitea da. Norberak egiten duena da benetan balio duena. Ikusiko duzu zer ondo sentituko zaren gero!

Txoriak lehenengo aldiz hegan egitean beldurrik ez duela uste duzu? Edo paraxutistak lehenengo aldiz hegazkin batetik salto egitean? Edo tigre batek lehenengo aldiz bakarrik ehizatu behar duenean?

Beti dago ezagutzen ez denari bakarrik aurre egin behar zaion lehen aldia, baina adorea izan behar da, eta hegan egin, salto egin edo ehizatu egin behar da, edo, zure kasuan, ohetik azkar irten bainugelara joateko. Bestela, egiaztatu zuk zeuk.

Iñaki bihotz hartu eta ohetik jaisten hasi zen oso poliki.

- Begiratu ohe azpian norbait dagoen eta hanketatik heldu nahi didan – pentsatu zuen.

Begiak itxi eta hankak lurrian jarri zituen poliki-poliki, eta ibiltzen hasi zen pauso txikiak emanez, zalantza, babesik gabe. Atea ukitu, bi eskuekin heldulekuari eutsi, ireki eta atera egin zen.

Bainugela korridorearen amaieran zegoen.

- Ai ama, ze urrun dagoen! – pentsatu zuen – baina azkar ibili behar zuen. Pixari ezin zion gehiago eutsi. Pauso motzak eta arinak ematen hasi zen. haren oinek bidea ezagutzen zuten iratxo isil batzuk ziruditen, eta konturatu orduko berriro ohean zegoen.

- ¡PUFFF! – oihukatu zuen gogo biziz – ¡PUFFF, lortu dut!

- Ez egin oihurik, Iñaki, ez duzu ikusten gelaren beste muturrera bidaltzen nauzula?

Iñaki gustura sartu zen ohean. Beldurra joan egin zen, desagertu egin zen, argia piztu beharrik ere ez zuen izan. Ilargia une batez agertu zen laino artean, irribarretsua. Baina Iñakiri ez zitzaion irudituko iseka egiten ari zenik, irribarre alaia irudituko zitzaion, bere zorionaren konplizea.

Isilunea iritsi zen, zuria, eta pixkanaka bazihoan lurrean, hormetan, jostailuetan eta Iñakiren gelako liburutegian zehar. Azkenean, logura nagusitu zitzaion haizearen eta euriaren urrumari, eta lo hartu zuen.

Ingelesa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Norberaren sentimenduak aztertzea.
- Sentimenduak sarritan gatazken iturri eta ondorio izaten direla ulertzea.
- Gatazkak ez sortzeko bideak aurkitzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Sentimenduen kuboa¹ - Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleek kubo bat egingo dute eta alde bakoitzean sentimendu bat idatziko dute: sad, happy, excited, bored, worried, decided... Biribilean eseriko dira. Haur batek dadoa zirkuluaren erdi-ra botako du. Irteten den sentimendua talde osoak landuko du.

- Aurrena, sentimendua deskribatuko dute gorputz-mintzaira edo aurpegi-adierazpena erabiliz.
- Ondoren, talde batek eskolako edo etxeko eguneroko gertaera bat antzeztuko du. Gertaera horretan, taldeak landu duen sentimendua adieraziko da. Kontuz! Ingeleseko hitzak bakarrik erabil daitezke.

Jarduera amaitzeko, esperientzia horretan nola sentitu diren eta amaitutakoan nola sentitzen diren galdetuko zaie ikasleei. Azaltzeko, ikasitako adjektiboak erabil ditzakete.

Materiala: Dado handia.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 40 minutu.

Iradokizuna: Bigarren eta hirugarren zikloan, jardueraren ondoren, gatazkak saihesteko eta konpontzeko sentimenduak adierazteak duen garrantziaz hitz egin daiteke.

¹ Honako honetatik egokitua: IPEDEHP. *Cómo abordar los sentimientos expresados por las niñas y los niños*. PEDEHP: Lima (Perú).

2 Jarduera:

Nire album pertsonala – Ziklo guztiak

Deskribapena: Pertsona bat hobeto ezagutzeak elkar hobeto ulertzen laguntzen digu, eta horrek arazoak ez izaten laguntzen du. Ikasleei horixe proposatuko zaie, bata bestea hobeto ezagutzea elkar hobeto ulertzeko eta egon litezkeen gatazkak saihesteko. Horretarako, datu pertsonalen fitxa bat (2.1 fitxa) betetzeko eskatuko zaie. Fitxa betetakoan, irakasleari emango diote, eta hurrengo egunetan fitxa horiek irakurriko dira, zeinenak diren esan gabe. Ikasleen erronka zeinetaz hitz egiten ari den jakitea izango da. Dena den, eta pertsona nor den asmatzen ez badute ere, eskaintzen diren datu guztiek pertsona hori hobeto ezagutzen lagunduko diete.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: Jarduera azaltzeko eta fitxak betetzeko, 20 minutu; eta 10 minutu egunero fitxak irakurtzeko eta zein den asmatzeko.

Iradokizuna: Fitxa alda daiteke, ikasleek duten ezagutzara egokitzeko.



2.1. Fitxa

- My name is
- I am a (girl/boy)
- I was born in
- I am years old.
- My mother's name is
- My father's name is
- I have sister and brother.
- The game I like is
- I like my house because
- My best friend is
- I like my mother because
- I like my father because
- I don't like when my mother
- I don't like when my father



Gorputz-hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Espazioan orientatzea norberari dagokionez edo beste pertsona bazuen jarrerei dagokienez, nozio topologikoak erabiliz.
- Entzundako informazioen aurrean erreakzionatzea.
- Taldeko jokoan garapenean laguntzea eta kooperatzea, besteak onartuz eta frustrazio txikiak gaindituz.
- Gatazkak saihesteko eta konpontzeko komunikazioak duen garrantzia ulertzea.
- Konfiantzaz aritzea eta jarduteko behar den denbora hartzea arazoak saihesteko eta konpontzeko.

Jarduerak

1 Jarduera:

Gogor zapalduz – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleak sei pertsonako taldeetan banatuko dira. Talde guztiek zeregin bera izango dute: lur-sail batean objektu susmagarriak aurkitu dituzte, eta lehenbailehen suntsitu behar dira. Taldeek antolatu egin beharko dute arazo hori modurik eraginkorrean konpontzeko. Jarraitu beharreko prozedura hau da:

1. Lurrean 5 puxika itsatsiko dira zeloarekin.
2. Taldeak erabakiko du zeinek lehertuko dituen puxikak, zapalduz.
3. Aukeratutako pertsonari begiak estaliko dizkiote zapi batekin.
4. Taldeko gainerako kideek puxikak dauden lekura zuzenduko dute pertsona hori (ezin dute berarekin joan, argibideak jolas-eremutik kanpo eman behar dizkiote).
5. Talde batek amaitutakoan, puxikak berriro jarriko dira lurrean, eta hurrengo taldea hasiko da.
6. Azkenean, bateratze-lana egingo da izandako sentsazioen eta erabilitako estrategien gainean.

Materiala:	1.1. fitxa, zela, puxikak, zapia.
Dinamika:	Taldekakoa.
Denbora:	60 minutuko saioa.
Iradokizuna:	Bateratze-lanerako, beharrezkoa da galderak (1.1. fitxa) talde bakoitzaren eta hezkuntza-zikloaren ezaugarrietara egokitzea.

2 Jarduera: Giza mordoiloa – Ziklo guztiak

Deskribapena:	Bi pertsona gelatik irtengo dira. Gainerakoek zirkulu bat osatuko dute eskutik helduta, eta kiribildu egingo dira, gainetik, azpitik eta batzuk besteen erdian jarriz, askatu gabe. Kanpoan dauden bi pertsonak sartu eta besteak askatzen saiatuko dira. “Mordoiloak” askatzaileei lagunduko die.
Dinamika:	Taldekakoa.
Denbora:	15 minutu.

3 Jarduera: Tren itsua – Ziklo guztiak

Deskribapena:	Taldea tren bat eraikiko dute, eta denakitsuak izango dira, tren-gidaria izan ezik. Gidaria azken tokian joango da. Trenek mugitu egin behar dute beste trenekin talka egin gabe eta, horretarako, tren-gidarien argibideei jarraitu behar diete. Hark ezin du hitz egin. Komunikatzeko, aurrean duenari kolpetxo bat eman behar dio bizkarrean, hark aurrekoari, eta horrela lehenengo pertsonara iritsi arte. Ibiltzen hasteko ere kolpetxo bat eman behar zaio aurrekoari bizkarrean. Ondoren, gatazkak eta arazoak saihesteko konfiantzak eta komunikazioak bizikidetzan duen garrantziaz hitz egingo dute, baita behar den denbora hartzeaz eta azkarregi ez joateko beharraz ere.
Dinamika:	Taldekakoa.
Denbora:	30 minutu.



1.1. Fitxa

Bateratze-lanerako...

- Nola antolatu da zure taldea?
- Nola konpon zenezaketen arazoa hobeto eta azkarrago?
- Zein taldek uste duzue erabili duela estrategiarik onena bere zeregina betetzeko? Zergatik?
- Arazo edo zeregin bat taldeka aurrera ateratzeko beharrezkoa da:
 1. Arazoa ongi ezagutzea.
 2. Taldean eta norberarengan konfiantza izatea.
 3. Irtenbideak taldean pentsatzea.
 4. Estrategia bat prestatzea.
 5. Gauzatzea.
 6. Estrategia errepasatzeak, balio izan du?

Zure taldeak urrats horiei jarraitu die?
Puxikak lehertzen zituen pertsonari
argibide garbiak eman dizkiozue?

Etika / Erlijioa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Gatazkak konpontzeko moduei buruz hausnartzea.
- Gatazkak konpontzeko gaitasun eta jarrera batzuk beharrezkoak direla onartzea.
- Gatazkak saihesteko, beren zergatiak ezagutzea.
- Gatazken aurrean jarrera positiboa hartzea, aukera gisa ulertuz.
- Gatazkak ezinbestekoak direla eta haiek nola konpondu ikasi behar dela ulertzea.

Jarduerak

1 Jarduera:

Bisita – Ziklo guztiak

Deskribapena: Ikasleak bost taldetan banatuko dira. Bakoitzak arretaz begiratuko die ikastetxeko hormetan jarritako bi posterri. Posterretako irudiak eta mezuak aztertuko dituzte eta beste ikaskideei nola aurkeztu pentsatuko dute. Amaitzeko, bisita gidatua egingo dute erakusketan, eta talde bakoitzak landu dituen posterrak aurkeztuko dizkie gainerakoei.

Amaitutakoan, denen artean hitz egingo dute hainbat arlotan gehien errepikatzen diren gatazkei buruz: familian, ikastetxean, herrian, munduan... Haiek nola konpon eta saiheste daitezkeen proposa dezakete.

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.



2 Jarduera:

Bizikidetza orekatuaren alde – Ziklo guztiak

Deskribapena: Eguneroko bizitzan, familiako eskubideak eta erantzukizunak betetzen ez diren egoera batean (seme-alabei entzuten ez dieten gurasoak, senide txikiagoak jo eta haietaz baliatzen diren senide zaharragoak...) pentsatzeko eskatuko zaie ikasleei, taldeka. Ondoren, aukeratutako egoera antzeztuko dute denen aurrean. Antzezpen bakoitzaren ondoren, alderdi hauek landuko dira:

- Zer ikusi duzue?
- Eguneroko bizitzan gertatzen den egoera da? Askotan gertatzen da?
- Norbaitek ez du errespetatu beste pertsona baten eskubidea? Nork?
- Norbaitek ez du bete bere erantzukizuna? Nork?
- Zein eskubide ez da errespetatu?
- Zer egin dezakegu hori berriro gertatu ez dadin?
- Zer gomendatuko zenuke?
- Zein dira gatazkak konpontzeko gure jarraibideak?

Azken galderako ideiak jasotakoan, horren posterra osatuko da. Posterra hutsik dago eta sormenaz bete behar da. Bide batez, erakusketan parte hartuko dute aktiboki.

Materiala: Azken posterra eta errotuladoreak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Ikaslegoari Jesusen mezuan pentsateko eta berauek egin duten proposamenarekin partekatzeko eska dakieke.



3 Jarduera:

Jesusengan pentsatzen – Ziklo guztiak

Deskribapena: Jesusi buruz ikasi duten guztia hausnartzeko eta taldeka galdera honi erantzuteko eskatuko zaie ikasleei: zein mezu ematen duela uste duzue gatazkak konpontzeko? Bateratze-lana egiteko, garrantzitsua da talde bakoitzak gutxienez ideia bat ematea eta Jesusek gatazkak konpontzeko erabiltzen zuen modua adierazten duen parabola batean pentsatzea.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Aurreko jardueran emandako gomendioak Jesusek ematen dituenarekin konpara ditzakete. Gure gomendioen berdinak dira?

